

SEGURNET 2020-ko ARAUDIA

I. artikulua: Araudia. FICOPA Fundazioaren Azoka Jardueretarako Araudia Segurnet 2020ko Araudi honekin bateginik geratzen da, bertako osagaia baita eta, horrenbestez, Erakustaldi honetan osorik aplikatzekoa, atal guztiei dagokienez. www.segurnet.org webguneko erakusketarien extranet-ean kontsulta dezakezu araudi hau.

II. artikulua: Non eta noiz. Segurnet 2020 FICOBAn egingo da, Gipuzkoako Erakustazokan: Iparralde hiribidea 43, 20302 Irun, 2020ko azaroaren 30ean 9:30etatik 18:00etara eta abenduaren 1ean 9:30etatik 17:00etara.

III. artikulua: Produktuak eta zerbitzuak. Sektore hauetako enpresak izango dira Segurnet 2020an erakusketari:

- Higieniko-sanitarioa
- 1. Garbiketa- eta desinfekzio-zerbitzuak
- 2. Birusa diagnostikatzeko eta detektatzeko testa
- 3. Klinika pribatuak eta laborategiak
- 4. Norbera babesteko ekipamenduak
- 5. BIO-Osasuna
- 6. Tenperatura kontrolatzeko sistemak
- 7. Corona-App-ak
- 8. Hondakinen tratamendua
- 9. Klimatizazioa
- 10. Segurtasun enpresak

Urruntzea

- 11. Pertsonak zenbatzeko, edukiera kontrolatzeko, okupaziorako eta pertsonen arteko distantziarako irtenbide automatikoak
- 12. Adimen artifizialean oinarritutako sistemak
- 13. Banantze-euskarriak
- 14. Seinaleztapen-biniloak
- 15. Arkitektura-zerbitzuak eta espazioen egokitzapena
- 16. Arriskuak ebaluatzeko ziurtagiriak

Ikerketa

- 17. Adimen artifiziala
- 18. Bioteknologia
- 19. Osasun-zientziak
- 20. Sozioekonomia

Eraldaketa digitala

- 21. Marketin-agentziak eta eraldaketa digitalerako laguntza-zerbitzuak
- 22. E-commerce soluzioak eta sare sozialetan presentzia
- 23. Herritarren alerta-kanalak
- 24. Zibersegurtasuna
- 25. Urrutiko hezkuntza eta telelana indartzeko hardwarea eta softwarea

Informazio instituzionala

- 26. Erakundeak

Antolatzaileak, eskabidea aztertu ondoren, produktu edo zerbitzuei uko egin diezaike, iruditzen bazaio ez datozela bat erakustaldiaren xedearekin.

IV. artikulua: Parte hartzeko moduak.

A) LURZORUA BAKARRIK

Gutxieneko eremua: 18m2

Prezioa/m2: 98 €/m2 + % 10 BEZ

Barne hartzen du: Koadro elektrikoa, 1.100 W-ko Schuco entxufe monofasikoarekin, web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; azokaren plataforma birtuala. Doako aparkalekua

B) STAND MODULAR PACK-a

Gutxieneko eremua: 12m2

Gutxieneko sakonera: 3m

24m2 arte: 183 €/m2 + % 10 BEZ

Barne hartzen du: lurzorua, melaminazko horma zuriak, aluminiozko profilak, errotulua, moketa, koadro elektrikoa Schuco entxufe monofasikoarekin eta 50w/m2-ko argiztapen-fokuekin, mahai borobila eta hiru aulki, erantzukizun zibileko aseguru; web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; B2B bilerak adosteko aplikazio informatikoa azokaren plataforma birtuala; Doako aparkalekua.

V. artikulua: Zerbitzu osagarriak. Zerbitzu eta altzari osagarrien katalogoa eskuragarri dago www.segurnet.org web-orriko erakusketarien extranet-ean. Kontratatzeko mesedez jarri harremanetan antolakuntzarekin.

VI. artikulua: Izena ematea, parte hartzeko kontratua eta eremua esleitzea. Izena emateko izapidea "Erakusketariak onartzeko eskabidea" online inprimakiaren bidez egin beharko da. Eskabidea jasotakoan, FICOBak telefonoz edo idatziz baieztatuko du erakusketaria onartu den, irizpideak betetzen diren kasuetan. Hala izanez gero, erakusketariak guztizkoaren % 50 ordainduko du, eta zuzenbideko ondoreetarako une horretatik aurrera "parte hartzeko kontratutzat" hartuko da izena emateko eskabidea. Transferentzia bidez ordainduko da, FUNDAZIO FICOBAn izenean (IBAN: ES 16 2095 5381 1210 6428 5785 SWIFT: BASKES2BXXX). Stand osoa ordaintzeko azken eguna 2020ko azaroaren 1a da.

Ordainketa jasotzean, erakusketariari baieztatuko zaio espazioaren erreserba, baina ez zaio kokapen zehatzik baieztatuko. Antolatzaileak askatasuna du kokapenak esleitzeko. Antolatzaileak erakusketariari jakinaraziko dio esleitutako standaren kokapena. Erakusketariak inskripzioaren unean kokapen jakin bat eskatu izanak ez du eraginik izango askatasun horretan. Antolakuntzak lekua aldatzeko ahalmena izango du eta erakustokiak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

VII. artikulua: Katalogo ofizialean sartzea. Katalogo ofiziala Segurnet 2020ren web-orrian agertuko da. Erakusketariak sektoreen arabera eta ordena alfabetikoan sartuko dira katalogo ofizialean, eta erakusketariak dagokion inprimakian horretarako utzi den eremuan adierazi dituen datuak jasoko dira bertan.

VIII. artikulua: Erakusketari-paseak. Azoka-egunetarako, baita muntatze eta desmuntatzeko egunetarako ere, erakusketari bakoitzak doako erakusketari-paseak jasoko ditu standean egongo diren langileentzat

IX. artikulua: Aparkalekua. Ficobako aparkalekua doakoa da, baina muntatze, azoka eta desmuntatzeko egunetan, gauean zehar (22:00etatik biharamuneko 8:00ak arte) utzitako ibilgailuen matrikularen berri eman behar zaio antolakuntzari.

X. artikulua: Muntatu eta desmuntatzea. Diseinuko standak muntatzeko eta stand modularrak apaintzeko egunak azaroaren 28 eta 29a izango dira, 9:00etatik 18:00etara bitarte. Desmuntatzeko egunak abenduaren 1a, 17:30etik 20:30era, eta abenduaren 2a, 8:00etatik 14:00etara, izango dira. Muntatzeko eta desmuntatzeko garaian ezingo da merkantzien zama-lanetarako ibilgailurik sartu pabilioietan. Erakusketariak edo haren instalazio, material edo merkantziek kalterik eragiten badu standetan edo azoka egiten den instalazioetan, erakusketariaren kargura izango da.

XI. artikulua: Merkantziak aurrez bidaltzea eta jasotzea. Enpresa erakusketariak aurrez bidali ahal izango du Antolakuntzak jasoko duen merkantzia. Egun eta ordutegi hauetan jasoko du aurrez: azaroaren 23tik 27ra, 9:00etatik 15:00etara.

Enpresa garraiolariak bere kabuz eta bere arrikupean deskargatuko du merkantzia, eta kamioi plataformaduna ekarri beharko du horretarako. Orga jasotzailea erabili behar bada, enpresa erakusketariari fakturaturako zaio zerbitzua. Aurrez erreserbatu ezean, ezin da bermatu orga jasotzailea erabilgarri egongo denik. Ez da jasoko merkantziarik azaroaren 23an ordainketa guztiak eginak ez dituzten enpresengandik.

XII. artikulua: Standei arreta. Erakusketariak behar bezalako arreta jarri behar dio standari Erakustaldia zabalik dagoen orduetan

XIII. artikulua: Entzunaldi eta emanaldiak. Standetan musika-entzunaldiak edo film nahiz sustapen-bideoen emanaldiak egiten badira, kontuan izan Egileen eta Argitaratzaileen Sozietate Nagusiari ordaindu beharreko egile-eskubideak daudela, eta erakusketariak zuzenean bere gain hartzen duela horren erantzukizun osoa. FICOPA FUNDAZIOAK ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, ez zuzenean ez zeharka, ez Sozietatearekiko ez erakusketariarekiko..

XIV. artikulua: Ezeztatzea eta parte hartzeari uko egitea.

Ukoa azoka inauguratu aurreko 90 egunetan egiten bada, eremuaren guztizko zenbatekoaren % 100 itzuliko da.

Ukoa azoka inauguratu aurreko 90 eta 30 egunen artean egiten bada, eremuaren guztizko zenbatekoaren % 75 itzuliko da.

Ukoa inaugurazioaren aurreko 30 egunetan egiten bada, eremua osorik ordaintzeko eskatuko da.

Ukoa formalki jakinarazi beharko zaio Antolakuntzari, eta uko hori jaso den eguna hartuko da ofizialtzat. Erakusketariak uko egin eta gero, antolakuntzak eskumena izango du erreferentziako eremua berak egoki irizitako norbaiti esleitzeko.

XV. artikulua: Ficoba Fundazioak beretzat gordetzen du erakusketa laburtu, luzatu edo atzeratzeko eskubidea, inguruabar bereziak edo ezinbesteko kausak direla-eta beharrezkoa bada, eta erakusketariak ez dute jasoko horregatik kalte-ordainik.

XVI. artikulua: Aseguruak. Standaren prezioak barne hartzen du hirugarren batzuekiko erantzukizun zibileko aseguru. Beste edozein aseguru kontratatatzeko betebeharra erakusketariari dagokio.

XVII. artikulua: Enpresa erakusketariaren langileak. Erakusketari bakoitza izango da bere stand kudeatzen duten langileen erantzule, baita haien beren zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen erantzule ere.

XVIII. artikulua: Betekizun legal, sanitario eta fiskalak. Parte hartzen duten enpresa guztiek legez jardun beharko dute, betekizun legal, sanitario eta fiskal guztiak betez. Enpresa erakusketariak antolakuntzaren eta / edo agintari eskudunen eskura jarri beharko dituzte egoera hori egiaztatzen duten agiri guztiak